



UGTK OSAKIDETZAKO OSASUN-ZENTROETAN UDA HONETAN EGONGO DIREN ORDUTEGI-MURRIZKETAK ETA ITXIERAK SALATZEN DITU

UGT Zerbitzu Publikoetik salatzen dugu Osakidetzak 2025eko udan lehen mailako arretako osasun-zentro eta kontsultategi askoren ordutegiak murriztea eta une jakin batzuetan ixtea erabaki duela. 120 zentro baino gehiago kaltetuak izango dira: 85 ordutegia murriztuko dute eta 38k une jakin batzuetan itxiko dute, eta soilik 211 mantenduko dute ohiko ordutegia.

Osakidetzak udako eskaera txikiagoa eta oporrak estaltzeko zailtasunak argudiatzen ditu, baina errealitatean, hau langile faltaren eta planifikazio eskasaren ondorio zuzena da. Euskal herritarrek eskubidea dute urte osoan, baita udan ere, osasun-arreta publiko, unibertsal eta kalitatezko bat jasotzeko.

Kontsultategiak ixteak eta ordutegiak murrizteak landa-eremuetan eta auzo periferikoetan eragin berezia du, arreta eskuratzea zailduz eta larrialdi-zerbitzuak gainkargatuz. UG Tk Osakidetzari eskatzen dio plantillak indartzea, murrizketak amaitzea eta zentro eta kontsultategi guztiak zabalik mantentzea.

Osasun publikoa ezin da behin-behineko konponbideen menpe egon. Langileen eta herritarren eskubideen alde lanean jarraituko dugu, lehen mailako arreta indartsu eta hurbila, murrizketarik gabe, baita udan ere, aldarrikatuz.



Zerbitzu Publikoak

UGT Informa

UGT DENUNCIA LOS RECORTES DE HORARIOS Y CIERRES EN CENTROS DE SALUD DE OSAKIDETZA ESTE VERANO

Desde UGT Zerbitzu Publikoak denunciaremos la decisión de Osakidetza de recortar horarios y cerrar puntualmente numerosos centros de salud y consultorios de Atención Primaria durante el verano de 2025. Más de 120 centros verán restringida su atención: 85 ajustarán su horario y 38 cerrarán en algún momento, mientras solo 211 mantendrán su horario habitual.

Estos recortes, justificados por Osakidetza como una respuesta a la menor demanda y a la dificultad para cubrir vacaciones, son en realidad consecuencia de la falta estructural de personal y de una mala planificación. La ciudadanía vasca tiene derecho a una atención sanitaria pública, universal y de calidad durante todo el año, también en verano.

El cierre de consultorios y la reducción de horarios afectan especialmente a zonas rurales y barrios periféricos, dificultando el acceso a la atención y saturando otros servicios como urgencias. Desde UGT exigimos a Osakidetza que refuerce las plantillas, ponga fin a los recortes y garantice la apertura de todos los centros de salud y consultorios.

La salud pública no puede depender de parches temporales. Seguiremos defendiendo los derechos de la plantilla y de la ciudadanía, reclamando una Atención Primaria fuerte y cercana, sin recortes, también en verano.